Hondarribiko Udala

**Gaia: Ondasun Higiezinen gaineko Zergan %50eko errekargua.**
**Asunto: Recargo del 50% del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.**

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ondorioetarako subjektu pasibo den etxebizitza batean udal-erroldan pertsonarik ez badago erroldatuta, ohiko bizilekua ez den etxebizitzatzat hartuko da, eta ondorioz, %50eko errekargua izango du.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera, aurrez eskaera eginda, errekarguaren aplikaziotik salbuetsita egongo dira sortzapen datan ondoko egoeraren batean dauden higiezinak:

1.- Erakunde publiko baten esku jarri direnak, erakundearen helburuetako bat horiek alokairuan jartzea bada.
2.- Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzak Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan alta emanda badaude. Salbuespen hori aplikatzeko beharrezkoa izango da higiezinaren titular katastrala izatea, edo kasua bada, alokairu kontratu bat izatea jardueraren titularraren alde, urte beteko epean edo epe luzeagoan.

3.- Zergaren sortzapen dataren aurreko urtean zehar titularra hil den etxebizitzak.

4.- Formalki aurri-egoeran deklaratutako etxebizitzak.
5.- Ondasun Higiezinen gaineko zergan hobariren bat dutenak.
6. Hiri-katastroan bi erregistro-finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, horietako bat ohiko etxebizitza izanik eta fisikoki bestearekin lotuta egonik etxebizitza bakar gisa

En el caso de que en el padrón municipal no conste ninguna persona empadronada en una vivienda del que se es sujeto pasivo a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles se considerará vivienda que no constituye residencia habitual y en consecuencia sometido a un recargo del 50%.

Según la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, previa solicitud, estarán exentos de la aplicación del recargo los bienes inmuebles en los que a fecha del devengo concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.- Los puestos a disposición de alguna entidad pública que tenga entre sus fines la puesta en alquiler de los mismos.
2.- Las viviendas destinadas a actividades profesionales o comerciales, de forma continuada, dados de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas. La aplicación de esta exención exigirá la condición de titular catastral del inmueble, o en su caso, la existencia de un contrato de arrendamiento a favor del titular de la actividad por plazo superior o igual a un año.
3.- Las viviendas cuyo titular haya fallecido a lo largo del año anterior al de la fecha de devengo del Impuesto.
4.- Las viviendas que hayan sido formalmente declarados en ruina.
5.- Los que gocen de alguna bonificación tributaria en el impuesto.
6. Las viviendas que formen dos fincas registrales independientes en el Catastro urbano que siendo una de ellas vivienda habitual y estando unidas físicamente son utilizadas como una única

erabiltzen direnak. Egoera hori baloratzen duen txostena eskumena duten udal zerbitzu teknikoek egingo dute. Ondasunen jabea pertsona bakarra izan behar da.

7.- Zergaren sortzapen dataren aurreko urteko azaro eta abenduan egindako eskualdakei.

8.- Hirugarren Adineko Egoitzetan erroldatuta dauden pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hori aplikatuko zaio bakarrik Egoitzan sartu baino lehenago egoiliarraren ohiko etxebizitza izaera zuen etxebizitzari.

9. Mendekotasun balorazioaren bidez, zaintza pertsonaleko behar egiaztatuengatik, zaintza horretaz arduratzen den ahaide batekin bizi diren edo erroldatuta dauden pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hori bakarrik aplikatuko zaio, zaintzaz arduratzen den familiarraren etxebizitzara joan baino lehen, mendekotasuna duen pertsonaren ohiko bizileku izaera zuen etxebizitzari.

10. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabetez edo epe luzeagoan alokatuta egon diren etxebizitzak (ez daude erabilera lagapenak sartuta). Aplikatzeko jarraian doan dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Alokairu kontratua behar bezala data emanda eta sinatua. Kontratu horretan agertu beharko du higiezinak helburu edo erabilera etxebizitza duela.
- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko errenten kobrantzaren banku-egiaztagiriak.

Alokairu kontratu horien berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

11. Ohiko bizileku izaera ez duten baina urteko 3.000 Kwh energiaren pareko kontsumoa egiaztatzen duten etxebizitzak. Egoera hori egiaztatuko da zergaren sortzapenaren aurreko urteko energia kontsumoen fakturak aurkeztuta.

vivienda. El informe de valoración de dicha circunstancia se realizará por los servicios técnicos municipales competentes. El titular de los bienes tiene que ser la misma persona.

7.- Los bienes que se hayan transmitido durante los meses de noviembre y diciembre del año anterior a la fecha del devengo del impuesto.

8.- Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en Residencias de la Tercera Edad. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al ingreso en la Residencia, tuviera la condición de vivienda habitual del residente.

9. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas que, por necesidades de cuidado personal acreditado mediante valoración de dependencia, convivan y estén empadronadas en la vivienda de algún familiar responsable de dicho cuidado. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al traslado a la vivienda del familiar responsable del cuidado, tuviera la condición de vivienda habitual de la persona dependiente.

10. Las viviendas que han estado arrendadas (no se incluyen las cesiones de uso) 9 meses o más en el año anterior al del devengo del impuesto. Se deberá presentar la siguiente documentación para su aplicación:

- Contrato de alquiler debidamente fechado y firmado. En dicho contrato deberá constar que el inmueble tendrá como destino o uso el de vivienda.
- Justificantes bancarios de cobro de las rentas del año anterior al del devengo del impuesto.

Se dará conocimiento de dichos contratos de alquiler a la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

11. Las viviendas que no tienen la condición de residencia habitual pero que acrediten un consumo equivalente anual de energía de 3.000 Kwh. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de las facturas de consumo energético del año inmediatamente anterior a la fecha de devengo del impuesto.

Hondarribiko Udala

12. Gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak. Egoera hori balioesteko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.

13. Obretan dauden etxebizitzak. Egoera hori Udaletxe honek emandako obra baimena aurkeztuz egiaztatuko da. Emandako obra baimenean jasotako hasiera eta gauzatze epea, zerga honen sortzapen datarekin bat etorriko da, indarrean dagoen ekitaldiaren urtarrilaren 1arekin alegia.

**Errekargutik salbuesteko eskaera aurkezteko epea: Urtarrilaren 1etik otsailaren 28a arte, uneko zerga-ekitaldiko eraginekin**.

Salbuespen eskaera egiteko inprimakia Biztanlearen Arreta Zerbitzuan daude eskuragarri (BAZ-SAC – Javier Ugarte kalea) edo www.hondarribia.eus web orrian. Inprimakian bertan eskatzen den dokumentazioaren berri ematen da.

Eskaera online izapidetuz egin ahal izango da, edo posta administratiboz edo HAZ- en bertan.

**Herritarrei HAZ-en aurrez-aurreko arreta emateko, aldez aurretik <u>HITZORDUA</u> eskatu behar da 943111213 telefonora deituta.**

**Gogorarazi egiten da HAZ-en ez dela fotokopiarik egiten.**

Ordutegia BAZ-SAC:

- Astelehenetik ostiralera
  Goizeko 9:00etatik 13:30etara
  Arratsaldez 16:00etatik – 18:00etara
- Larunbatetan
  Goizeko 10:00etatik 13:00etara

Helbidea: Javier Ugarte 6

Telefonoak:
BAZ 943 11 12 13
Errentak 94311 12 59

12. Las viviendas que no cumplan con las condiciones mínimas de habitabilidad. El informe de valoración de dicha circunstancia se realizará por los servicios técnicos municipales competentes.

13. Las viviendas que se encuentren en obras. Dicha circunstancia se acreditará presentando la correspondiente licencia de obras otorgada por este Ayuntamiento cuyos plazos de inicio y ejecución coincidan con el de la fecha de devengo de este impuesto, 1 de enero del ejercicio en curso.

**Plazo de presentación para solicitar la exención del recargo: Desde el 1 de enero hasta el 28 de febrero con efectos al ejercicio en curso.**

El impreso para la soliciud de exención estará a su disposición en el Servicio de Atención al Ciudadano (BAZ-SAC – Javier Ugarte kalea) o en la página web www.hondarribia.eus. En dicho impreso se informa de la documentación requerida.

La solicitud se podrá efectuar mediante tramitación online, correo administrativo o presencialmente en el SAC.

**Para la atención al público presencial en el SAC es obligatorio pedir <u>CITA PREVIA</u> llamando al 943111213.**

**Se recuerda que en el SAC no se realizan fotocopias.**

Horario BAZ - SAC:

- de lunes a viernes
  Mañanas: de 9:00 a 13:30 horas
  Tardes: de 16:00 a 18:00 horas.
- Sábados
  Mañana: de 10:00 a 13:00 horas.

Dirección: Javier Ugarte 6

Teléfonos:
SAC 943 11 12 13
Rentas 943 11 12 59